

Ekoizpen Eszenikorako Azpiegitura Zerbitzuko BALIABIDEEN FUNTZIONAMENDU ETA ERABILERARI BURUZKO ARAUAK

Arau orokor gisa, instalazioak eta materialak **modu arduratsuan** erabiliko dira, kontsumoa iraunkorra eta jarduerarekin bateragarria izateko moduan.

- Zerbitzua erabiltzeko **ordutegia** honako hau da **oro har: 09:00etatik 21:00etara**.
- Ordu-tegi horretatik kanpo erabili nahi bada, bulegoan jakinaraziko da.
- Zerbitzua erabiltzeko egutegia kontratuan ezarriko da, eta horri beste **egutegi bat** erantsiko zaio, **udal jarduerak zein egunetan izango diren** jakinarazteko. Egutegi horretan, instalazioak zein ordutan erabili ahalko diren adieraziko da. Egun horietan gunea ez da erantzule egingo baldin eta konpainiak materiala jaso ez eta ezer gertatu bazaio.
- Bestalde, konpainiak **laneko plan eta ordutegi bat** aurkeztuko du.
- Konpainiak **giltza joko** bat izango du, gunetik sartu eta ateratzeko, bulego ordutegiaren mende egon gabe. Konpainia arduratuko da, beraz, erabiltzaileak giltza joko horrekin molda daitezzen koordinatzeaz.

Erabiltzaileek honako hauek izango dituzte eskura:

- Antzokia
- Argi ekipoa.
- Soinu ekipoa.
- Agertoki azpiko eszenografia tailerra.
- Aldagela bat.

Baldin eta konpainiak gune eszenikoan jarduteko **aretoa egokitu behar badu edo beste baliabide batzuk behar baditu**, behar besteko aurrerapenarekin egingo du eskaera, behar duenean dena erabiltzeko moduan egon dadin. Esate baterako:

- Gune eszenikoko argien edota soinuaren kontrola.
- Monitorajea.
- Intercom-a.
- Lan mahaia.
- Kamera beltza edota oihalak.
- Eta abar.

Ezustekoren bat gertatzen bada, bulegoan jakinaraziko da edo guneko teknikariarekin harremanetan jarri beharko da.

Arduradun bat izendatuko da, konpainia gunean dagoen bitartean baliabide teknikoaren funtzionamenduaz ardura dadin.

Konpainiak guneko zerbitzu teknikoaren aholkularitza eta laguntza teknikoa izango ditu obrarako argiak, tramoia eta soinua muntatzeko.